Goi Mailako
Lanbide
Heziketa

Energia
eta ura

# Zentral elektrikoetako goi mailako teknikaria



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Fondo Social Europeo
Europako Gizarte Funtsa

El FSE invierte en tu futuro
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du

UNIÓN EUROPEA
EUROPAR BATASUNA

# Zentral elektrikoetako goi mailako teknikaria
## Zure etorkizuneko bizibidea

Ziklo hezigarri hau amaitzen duzunean kalifikatuta egongo zara hurrengo jarduera profesionalak garatzeko:

**Zentral termoelektrikoetako eragiketak kudeatzea**

- Erregimen egonkorreko zentral termoelektrikoetako eragiketen prozesuak gainbegiratzea.
- Zentral termoelektrikoetako eragiketen maniobrak kontrolatzea, abian jartzeko eta gelditzeko prozesuetan eta ezohiko funtzionamendu-egoeretan.
- Zentral elektrikoetako eragiketen arloan diharduen giza taldea koordinatzea eta prestatzea.
- Zentral termoelektrikoetan, plantan bertan lan egitea eta lehen mailako mantentze-lanak egitea.

**Zentral hidroelektrikoetako eragiketak kudeatzea, ondoko gaitasun unitate hauek biltzen dituena**

- Zentral hidroelektrikoetako plantan bertan kontrolatzea eragiketak eta mantentze-lanak.
- Zentral hidroelektrikoetako kontrol-zentrotik lan egitea.
- Zentral hidroelektrikoetan, plantan bertan lan egitea eta lehen mailako mantentze-lanak egitea.
- Zentral elektrikoetako eragiketen arloan diharduen giza taldea koordinatzea eta prestatzea.
- Goi-tentsioko instalazio elektrikoetako arriskuak prebenitzea.

**Azpiespazio elektrikoen muntaketa, eragiketak eta mantentze-lanak kudeatzea. Honako gaitasun unitateak biltzen ditu**

- Azpiestazio elektrikoen muntaketa kudeatu eta gainbegiratzea.
- Azpiestazio elektrikoen eragiketak eta mantentze-lanak kudeatu eta gainbegiratzea.
- Tokian jardutea eta azpiestazio elektrikoetako lehen mailako mantentze-lana egitea.
- Goi-tentsioko instalazio elektrikoetako arriskuak prebenitzea.

### KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Profesional honek zentral elektriko termikoen bidez elektrizitatea sortzearekin lotzen diren enpresetan egiten du lan (ikatza, gasa, diesela, biomasa eta beste erregai batzuk, eta elektrizitatea sortzeko eguzki zentral termikoen instalazioak eta baterako sorkuntzako instalazioak barne), baita zentral hidroelektrikoen bidez elektrizitatea sortzearekin lotzen diren enpresetan ere. Era berean, goi-tentsioko instalazioak dituzten enpresetan egiten du lan, eta zentral eta azpizentral elektrikoek muntatzeko eta mantentzeko lanak egiten dituzten industria-enpresetan ere bai –funtzionalki goragoko baten mende egongo da, baina bere kargura langileak ere izan ditzake–.

**+ INFO**

T 848 42 66 16 | 848 42 64 00
**www.educacion.navarra.es**

# Energia eta ura

Hauek dira jarduera eta lanpostu aipagarrienak:

- Zentral termoelektrikoetarako eragiketen laguntzaile teknikoa.
- Kogenerazio-sistemen eragiketen eta mantentze-lanen arduraduna.
- Zentral termoelektrikoko plantako langilea.
- Zentral termoelektrikoen kontroleko operadorea.
- Zentral hidroelektrikoetako eragiketa eta mantentze-lanetako teknikaria.
- Zentral hidroelektrikoen kontrol-zentroko operadorea.
- Zentral hidroelektrikoetako plantako langilea.
- Azpiestazio elektrikoak muntatzearen arduraduna.
- Azpiestazio elektrikoetako mantentze-lanen arduraduna.
- Azpiestazio elektrikoetako operadore mantentzailea.

## ZIKLOAREN MODULUAK

- Zentraletako sistema elektrikoak.
- Arrisku elektrikoen prebentzioa.
- Produkzio elektrikoko zentralak.
- Zentral elektrikoetako mantentze-lanak.
- Ingelesa (tarteko maila).
- Telekontrola eta automatismoak I / II.
- Azpiestazio elektrikoak.
- Zentral elektrikoetako eragiketa.
- Giza taldeen koordinazioa.
- Lanerako prestakuntza eta orientabidea.
- Enpresa eta ekimen sortzailea.
- Zentral elektrikoen proiektua.
- Lantokietako prestakuntza.